

# Festa ospakizunak. Egun eta atzoko berri batzuek

(Festive celebrations. Some news of the past and present)

Garmendia Larrañaga, Juan

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-218-3 (2011), 203-218]

---

*Azaldu dudanez, jaia eta horri loturiko ospakizunak dira iragana eta orainaldia elkartzen dituen kultur katebegia. Xehetasun handiko bilduma honetan aztertu ditut ospatzeko moduen osagaiak eta ñabardurak. Horretarako, Euskal Herriko jai-egutegiaren lagin etnografiko adierazgarria hautatu dut.*

*Palabras clave: Fiesta. Ritual. Calendario festivo. Costumbres.*

*La fiesta y sus celebraciones son presentadas en tanto que eslabón cultural entre el pasado y el presente. En este trabajo se analizan y recogen minuciosamente, elementos de los modos de celebración y sus matices. Todo ello a través de una selección etnográfica representativa del calendario festivo vasco.*

*Giltza-Hitzak: Festa. Errituala. Ospakizun egutegia. Ohiturak.*

*La fête et ses célébrations sont présentes en tant que liens culturel entre le passé et le présent. Dans ce travail on analyse et on recueille, minutieusement, des éléments des modes de célébration et leurs nuances. Tout cela à travers une sélection ethnographique représentative du calendrier festif basque.*

*Mots-Clés : Fête. Rituel. Calendrier festif. Coutumes.*

## Joxemartin Apalategi adiskide maitearen oroigarri

Pentsamendu intelektualak aske jokatu behar du.

Nire bizitza osoa euskal kulturari eman nion, pertsona eta honen aniztasunaren azterketatik abiatuta.

Eskerrak nire irakasleei, ikasleei eta komunikatzaileei. Eta azken unera arte lagundu, nigan sinetsi eta maitatu ninduten guztiei. Hauetarako dedikatzen dizkiet nire lanak.

*Joxemartin Apalategi (1949-2006)*

Tolosa inguruan badugu "zazpi bideak" izenarekin ezagutzen den toki menditsu bat, okerreko bidea hartu eta galtzeko erreza.

Nire gaurko lan honek ere badu aipatutakoaren antzekotasuna, beste mundukoa ez da izango, bada, bide zuzenetik irtetea. Baina "dena dela" Elduko apai-zarena, sar gaitezen gaian, bidez-bide gure ekintzatxoa betetzeko asmotan.

Abuztuan mendiak itzala egiten hasten direla esaten duen esaera zahar bat badugu. Egunak moztzen eta, pixkana baina gizonarentzat ez astiro, udazkenetik negu aldera leihatila ireki, zabaltzen edo hazten joango den leihatila, gauak, ilunpeak argitasuna urritzen duen era berean.

Abenduak sei. Nikolas donearen eguna, han-hemenka eskolako umeei ospatuko duten jaia, lurralde askotako ospakizuna. Ikus dezagun nola zen Billabona herrian tinkatua.

Neska eta mutilek, bakoitza bere aldetik, egun honetako goizean eskolako atsedenaldira baliatuta eta eguerdiko aldarrean, eskean ibiltzen ziren etxerik etxe; bakarka, binaka edo hirunaka, beti talde txikietan.

Arratsaldean ausartzen zena ate-joka eskean ibiltzera, entzungo zuen ohiturazko erantzuna: "bukatu da San Nikolas, bukatu da...".

Aipatutako eske ibiltze honetan, mutiko batzuek janzen zuten kartoizko zapel edo kapelua, ttuntturro tankerakoa, gotzainaren mitra gogoratu nahian; eta batek baino gehiagok atsegin izaten zuten mitra hau paper zerrenda kolorezko batzuekin apaintzea.

Dirua edo jana zuten beren hartzekoa eta bakoitzak bere zatitxoaz jabetzen zen. Beren ongietorri alaia, abestia zuten. Ate guztietan abestuz agurtzeko:

San Nicolás coronado,  
Obispo fue muy honrado  
Ale, ale, alegría  
Todo el mundo salvaría.  
Aquí estamos tres,  
Cantamos dos,

Una limosnita  
Por amor de Dios.  
Ángeles somos,  
Del cielo bajamos  
Para Jesucristo  
Dinero pedimos.

Beren gabonsari edo aginaldoaren zain zeudela edo hura eskuratzeko itxaropen handirik gabe ere, honela abesten zuten:

San Nikolas txikia  
Zure ganbaran hazia,  
Zure ganbaran zer dago?  
Andre Juana Maria.

San Nikolas eguneko ospakizun apal hau orain dela hogeita bosten bat urte galdu zen Billabona herrian. Euskarazko abestitxoak, berriz, lehendik ahaztua zuten.

Tolosan izan zen mutil jolas ohitura bat, neronek ezagutu ez dudana. Abenduak hamahiru, Santa Luzia eguna. Eta bezperako arratsaldean, ilunabarrean hobeki esateko, mutil kozkorrek beren eskola saioa amaitu ondoren, bereganatzen zituzten eskura etortzen zitzaizkien metalezko tresna zahar baztertuak: eltzeak, pertzak, zartaginak, etab. Eta mutiko guztiak elkaturik, kalean gora eta behera ibiltzen ziren, zalaparta osoan, ontzi soinu zaratatsu baten barnean, oihu eginez behin eta berriz: "Santa Luzia, Luzia, le, aguazillaren bildurrik gabe".

Ohitura honek berarekin ekartzen zituen neurri gabeko gertakizunak. Honela, arratsalde ilun eta zalapartatsu haietako batean, udaltzain edo aguazil bati bizarra erre zioten. Laurogeita hamarren bat urte izango dira Tolosako kaleetan "Santa Luzia, Luzia, le, aguazillaren bildurrik gabe" entzuten ez dela.

Abenduaren hogeita batean, Santo Tomasek badu festa kutsu berezia, Donostian adibidez. Santo Tomas feriak eta honen inguruan egun antolatzen diren jaiak, maizter eta nagusien arteko ohitura bat gogorarazten ditu.

Urteko etxe-sariaren barnean hegatziz ere ordaindu beharra, antzinako ohitura lege bihurtutako bati jarraituta. Eta hau ez nekazari edo baserri giroan bakarrik; kaleko etxe-sarrietan ere aurkitzen dugu.

Herri batek era askotara adierazten du bere nortasuna, batez ere bere festaldietan, erlijiozkoak izan ala mundutiarragoak, eta horietako batzuk eusten diote antzinako kutsuari.

Denboran oso atzera joan gabe, honela irakurtzen dut 1756ko agiri batean, Legorretan idatzitakoa:

Item por el menguante de San Juan tomé Regimiento, y fuera de los regalos que me cambiaron de visita, gasté en vino y chocolate diez reales de vellón, y en carne otros diez, que hacen veinte (reales).

Udako solstizioan pizten den suak ohitura orokor bati erantzuten dio eta sua piztu izan da bide-gurutzeetan ere eta herrixkak duen lekurik agerikoenean.

Suarekin oroituko dugu ere bere piztuera. Eguzkia, ilargia eta beste izarrak jainkoen bizilekuak dira. Faraoi batzuk, Eguzkiaren semetzat hartzen zituzten.

Tartesotarren erregeak Eguzkiaren ondorengotzat zuten beren burua. Inkatarren inperio bat sortu zuten, hiru lur motarekin: Inka edo estatuarenak, Herriarenak eta Eguzkiarenak. Azkeneko lur hauek sakratuak ziren, herri-gizonek landuak.

Beroa bizia da, sua piztu izan da hilobietatik hurbil, bizia eman nahi bat agertuaz. Bizia, bada, beroa da.

Gizakiak berarekin izan du sua, bere ospakizun garrantzitsuetan.

Inauteriak ez du sua urrun; errepikatuko dut sua piztu dugula udako solstizioan, suaren inguruan igarotzen ditugu Gabon jaiak eta azkenik, suarekin eman izan zaio azken agurra urteari.

Uste dut burutapen edo pentsaera hauek baliagarriak direla gure gaurko gai batzuen ezaugarri bezala.

Antzina, neguko solstizioaren ohorez jai handiak egiten omen ziren, "eguzkiaren jaiotza" baitzen.

Kristau aroan, 274garren urtean, Aureliano erromatarren agintariak abenduaren 25ean jarri zuen "Eguzkiaren jaiotza" eta laugarren mendez geroztik, Elizak ospatzen du Jesusen jaiotza abenduaren 25ean.

## **1. EGOBERRI JAIK**

Ospakizun hauek ez dira osotasunean, batera ikusi behar, baizik bere zatiketa bereziarekin.

Sarrera: Gabon, Eguberri bezpera edo Olentzero dugu.

Olentzaro, Olantzaro, Orentzaro, Orentzago, Onentzaro, Orantzaro, Onontzaro eta abarri buruz askotan aritu izan dira. Adibidez, Azkue, Pio Baroja, Aita Eusebio Etxalar, Jose Maria Iribarren, Jose Migel Barandiaran, Julio Caro Baroja, Satrustegi, eta abar; neronek ere badut zerbait idatzia.

Olentzeroren sortzea iritzi ezberdinen pean mugitzen da.

Honela esaten digu Orixek:

Begigorri bat dator aiton Olentzaro, urteak egun ainbat begi ta bat gehigo. Gurdia aiñako sabel: aurpegi dena ago, nondik nora sortu zan jakin bage nago.

Baina arlote honekin gauza bat argi dago: Olentzero ez zen Euskal Herri oso-ko irudia, gizakiaren irudimenak osatu duena, baizik gure Beterrikoa, Goierrin gutxi, Bidasoa ingurukoa, Gipuzkoako itsas ertzekoa eta Nafarroa mendialdekoa, batez ere.

Adibidez, bere azken urte haietan Lekunberrin esaten zen: "Orantzaro umeei lepoa itaiarekin moztutzea etorriko zala", baina atzerago joanez gero, Lekunberrin ez da Orantzaroren arrastorik aurkitzen.

Honekin adierazi nahi dut egun Euskal Herri guztira iristen bada ere, lehen ez zela berdin gertatzen.

Arribeko Onontzaro, Nafarroako Araitz Bailaran, leiho edo balkoietan jartzen zuten. Trapuzko panpina trakets bat izaten zen, lastoz edo belarrez betea. Berdin Leitzakoa ere.

Baina Olentzero su inguruan berotu zalea dugu. Ikazkin arlote horren etxekeo sarrera tximinia da gehienetan.

Lesakako Olentzarok su-garretan du bere amaiera.

Bedaioke Olentzaro zalea izan da larazetik zintzilikatuta egoten. Egun honetan, auzoko baserri ateetan entzun izan da:

Goazen, goazen guztiok  
laxterka Belena,  
adoratu dezagun  
Aurrik ederrena.  
Aingeruak esan du  
or mendi gañean  
Jesus jaio zaigula  
Belengo estalpean.

Elduaingo umeei esaten zieten: "birikatu zazute gaztañekin erabiltzen dan danboliña, tresna onen soiñuarekin Olentzero etxe-ingurutik urrundu dedin."

Lizartzan maitea zuten "Olantzaro". Afaltzeko eserlekua gordetzen zioten.

Sukalde inguruan garenez gero, gogoratuko dut antzinako beste ohitura bat.

Gau honetan pizten zen "Gabon-supilla", "Olentzaro trunkoa", "Orantzaro enborra", "Onantzaro gabeko baztarrekoak" eta beste hainbat izen zituen enborra.

Hau horrela eta Gabon egunez mintzatzen, behin-batean Aiako "Agerre" baserriko etxejauna zen Manuel Mari Orbegozok esan zidan nola Iturriotzeko bide-ostatuaren sukaldera bi behiek karreatu zuten pago zuhaitz osoa.

Gabon egun honetan etxerik etxe eskean edo puska biltzen ibiltzeko ohitura bizirik dago. Soinuarekin edo soinurik gabe, abestuaz gehienetan:

Eguzki aldetikan  
datozen berriak,  
guztiz dirade  
konsolagarriak.  
Oiek aditutzean,  
nik uste detanez  
geldituko zerate  
arriturik pozez.

Uitziko Gabon egunean abesten zuten:

Orantzaroz buru aundia  
entendimentuz jantzia  
maiztar etxean  
eran emen du  
amar pintako zagia,  
aittona tripa aundiya.

Arabako Ulibarri-Arana herrixkan, antzinako Gabon saria etxean egindako ogi harroa, "soba" edo "sopiil" izenekoa izaten zen. Batzuetan ogi hau lukainka edo sagar batekin betetzen zuten eta labean erretzen utzi. Ohitura hau aspaldi galdua dugu.

Idiazabaleko Ursuaran bailara bakartian abesten zuten:

Zapata txuri paperez,  
ebiak jo ta baterez.  
Nagusi jauna, gu hemen gatoz  
esperantza gorderik,  
eztegula ta iñun billatzen  
berori baiñan oberik.

Agur, agur, jende noblea,  
berri on bat dakargu;  
atentzio on bat eduki beza  
iñork aditu nai badu.

Adan da Ebak egin zutenean Paradi-soan pekatu,  
gure munduko neka-dañuak argatik ziran gertatu.  
Ordu artantxen Jesus guriak bereala zuen pentsatu,  
denborarekin era berrien bat bearko zala pentsatu.

Eta zer afaldu?

Kale etxeetan eta baserrian ezberdin, baina denetan ahal zuten ondoena. Baserrian baratxuri zopa, bakailaoa, gaztainak, sagar konpota edo "ardo sagar-rrak" –Nuarben entzuna–, ardoa, "zurrapapotea" –pikuak ardotan egosita kanela zotzarekin– eta kafea pattar txuri eta gorriarekin.

Gaztaina aipatu dugunez, adieraziko dut honen garrantzia gure nekazari etxe-etan. XVIIIgarrengo "matxinadan" 1766. urtean hain zuzen, iraultzaile edo matxi-noen eskeetako bat gaztainen hamarrena –diezmo– kentzea izan zen.

Afaldu ondoren, Gauerdiko Meza eta ondoren, etxean "Sorgin afaria" gauerdia eta sorginak ondo uztartzen baitira. Leku batzuetan, "Sorgin afari" hau bigarren afaria izan da.

Afalondoko ezquila jotzeak ere izan du zerikusia egun hauetan, Eguberri jai hauetan.

Antonio Truebak honela dio:  
Campanero, sube, sube  
a la torre de la iglesia,  
y tus "hosannas" de gozo  
el Universo estremezcan,  
que a cumplirse van los santos  
vaticinios del profeta,  
que, compañeros del alma,  
esta noche es Nochebuena.

Nafarroako Errazkinen, Gabon egunean gaueko hamaikak inguruan, hogei-  
ren bat minutuko ezquila jotzea egiten zuten, hiru edo lau gazteren artean.

Eguberri egunean, meza nagusiaren ondoren, umeak eskean ateratzen ziren  
"Eguberri intxaur biltzea" izeneko ohiturari jarraituaz. Atez-ate abesten zuten:

Egun, egun on  
gaur Pazkoa,  
Jesus jaio da  
eta gure gozoa.

Urtezharrari agurra nola?

Hemen ere, gizakiak berarekin izan du sua.

Gogoratuko dut Arabako herri askotako zahagi erretzearen ohitura, "erre  
puierre" esanez.

Urtezharraren egunean, afaldu ondoren, bederatziak inguruan, Aguraingo  
Opakua bailaran, hamar-hamabost urteko neska mutilek "Gutierrez" izena zera-  
man panpina erretzen zuten, txori-izugarri, kalean eta auzoko etxeetan ibili  
ondoren.

Baztango Beartzunen, Urtezharraren egunean eskean ibiltzen zirenak, inguru  
alaitzen zuten esanez: "Urte zar, nik atorra zar, maunkarik ez, nik axolik ez.  
Aingeruak gara, zerutikan eldu gara, boltsa badugu, dirurikan eztugu: urtes,  
urtes..."

Urtearen azken egun honetan, Zugarramurdiko "Gazte Lagunak" izena zera-  
man taldea eskera irteten zen, gauaz eta akordeoiarekin.

Ez ziren aparteko baserrietara hurbiltzen, herriko etxeetan gelditzen ziren.

Beraien abestia honela zen:

San Silbestre igorri gaitu  
izan eder bat gidari,  
aren nonbretan ibili gaitezen  
gaurko gaubean kantari.

Ate gehientsuenetan dirua ematen zieten eta gazte hauek Urteberri egunean afaltzera biltzen ziren.

Gure herri batzuetan, ezkila joaz agurtzen zuten Urte Berria.

Adibidez, Gorritin. Herrixka honetan gauerdian ekin eta argiezkile arte jarraitzen zuten kanpaiak jotzen.

Eta eliz-dorreko kanpai doinu hau mututu baino lehen, han izaten ziren Azpirozko gazteak, abestiekin eske-ikusketara alaitaz:

Or goyen, goyen, elorri,  
ondoan jo ta erori,  
etxe ontako etxeoandriak  
Amabirgiña diruri.

Sentitzen zaitut, sentitzen  
ari zerala jekitzen,  
zure gerriko giltze soñuak  
ementxen ditut aditzen.

Aramaion honela abesten zuten Urteberri arratseko eskean:

Urteberri daukenak eztaukenari,  
Nik eztaukat eta niri agillando.  
Telle-montaña (Aramaiko mendia)  
Zazpi intxaur eta zortzi gaztaña.  
Aren gañian launa sagar,  
Nik bai agiñek berdin xamar.

Errege bezperako ohitura berezia, herri askotakoa behintzat, zintzarria joaz ibiltzea izan da. Kalez-kale, gora eta behera, edo baita ere eskean etxerik-etxe.

Errege bezpera egun guztian Eratsungo umeek bere "joalek" joka ibiltzen dira, aldi berean, etxeetatik botatzen dieten dirua, intxaurrak, urrak etab. jasoaz.

Gauetz, ekintza berean jarraitzen dute gazteek, baina hauentzako ez da saririk.

Eguberri eguneko eskean eta Errege bezperakoan, Errazkingo etxe atarietan entzun ohi zen behin eta berriz:

Or goien, goien izarra,  
errekaldean lizarra,  
etxe ontako nagusi jaunak  
urre gorrizko bizarra.



Baina esku hutsik, ezer eman gabe uzten bazituzten, honela agurtzen ziren:

Or goien, goien lañoa  
aren azpian otsua,  
etxe ontako limosnarekin  
ez diagu beteko zakua.

Errege bezperan gaueko zortzietatik aurrera, Lezaetako umeek agurtzen zituzten herrixkako baserriak, zintzarri soinu eta zalaparta osoan.

Egun berean, antzeko zerbait gertatzen zen Lekunberrin. Arratsaldean eta "illun-ezkille" entzun arte, hemengo mutikoak, binaka, bakoitza bere zintzarriekin kaleratzen ziren.

Arriben Errege bezperan bizirik dirau zintzarri joka eskean ibiltzeko ohiturak. Neska-mutilek bi talde osatzen dituzte; bata umeena eta bestea helduagoena.

Lehen aipatutako Beartzun, Elizondoko bailara basabazter bat da. Eskean ibiltzea ahaztua dute, 1936. urtez gero. Baina oraindik ere, Errege bezperan garea jotzen dute. Ilunabarrean, leiho atzetik, bordatik bordara agurtzen dira, garea joka, anaikor, auzo honetako biztanleak.

Erdi Aroko berri batekin utziko ditut Gabon aroko ospakizuna eta ohitura hauek; 1381eko aipamena da:

Del hostel del rey entre enero y octubre. El itinerario real es el siguiente: Puente la Reina, Estella, Olite, Pamplona (en febrero), nuevamente Olite y Pamplona (abril y mayo), Barasoain (hasta el 25 de septiembre), Olite, Sangüesa, Lumbier, Urroz, Roncesvalles, Larrasoaña y Pamplona (octubre). En el capítulo de "mises" o gastos reales, se da cuenta de compras etcétera (...). El 1 de febrero, Carlos II hace una ofrenda de 20 sueldos, el día de Santa Gadea. El 6 se paga un par de zapatos comprados para "le petit roy", o sea el rey de la faba, que actuaba en la fiesta de la Epifanía (Catálogo del Archivo General, Sección de Comptos. Registros. Tomo LII - Años 1365/1535) (Nº 905 - Año 1381 - pp. 71/72).

*Ilbeltzaren hamazazpi, San Anton eguna. Abereak bedeinkatzeko eguna.*

Nafarroako Zubietan aurkitzen den San Anton elizatzooan, bere egunean, astoak bedeinkatzen dituzte, eta ondoren beraiekin bi edo hiru itzulinguru ematen dizkiote ermitari.

Berastegiko San Anton ermitan, eguerdi inguruan, abereen bedeinkatzea izaten da. Gero, ilunabarrean, abere hauen jabeek afaltzera biltzen dira bertako ostatuetan.

Otsailaren aurrena, Santa Brigidaren eguna. Santa honek behien errapea hazten omen ditu, eta honek, San Joan inguruko ohitura batekin uztartzen nau. Egun honetan bedeinkatutako belarrak –belar onak izenekoak– egosi eta ur harekin errapea igurtzita, errape-mina sendatzen du.

Otsailaren bia, Kandelariaren eguna; herri batzuetan jai-erdia orain dela urte gutxi arte. Kandela eta argizaria bedeinkatzeko eguna.

Mutiloan jaso dut nola otsailaren bian eskean ibiltzen ziren, burrunzia hartu eta txorixoa, urdaia eta antzekoak biltzen. Honela abesten zuten:

Andre Mari otsailko, otsailko  
Nik otso bizia ilko,  
okela bat eta okela bi  
Nere burrunzia bete bedi.

Egun honetan mintzatu garenez gero, oroigarritxo bat egingo diegu pertz konpontzaileei: "Konponi Kaldera, arregla chocolatera" deiadarka ibiltzen ziren gizon-emakume haien inguruan antolatu den jai herrikoia Donostian, Tolosan eta beste hainbat herritan.

Pertz konpontzaileak eta zorroztaileak euriaren iragarleak dira.

Otsailak hiru, San Blas. Jana bedeinkatzeko ohitura dugun eguna. Eztarriko gaitzen kontrakoa, katarroarena batez ere. Eztula egiten duenari "San Blas" esateko ohitura ezagutu dugu. Esango duzue, eta arrazoiarekin, eztarriko gaitzak, katarroak eta eztulak festa triste xamarrek direla.

Baina nahiz eta gauzak honela izan, San Blas egunak badu bere izate-alaia. San Blas izena daraman elizaxoen inguruan antolatzen dira dantza, piperropilen salmenta dei bereziekin adieraziaz: "bata, bia, hirua..."

Tolosak badu San Blas izena daraman ermita eta orain dela ehunen bat urte arte, gutxi gora-behera, beste jaialdiekin batera, herriko gazteen ohitura "zanki-ñaka" jolastekoa zen, elizaxoaren inguruan aurkitzen den barrutian.

Antzina txerri mingainen ofrenda egiten zen. Abeslarien patroia ere bada San Blas, gaur egun ahaztu xamar egon arren.

Otsailak laua, Santa Ageda bezpera, "legearekin kunpli dezagun" abestuz eskean ibiltzeko eguna. Baita gaur egun apenas entzuten den hau errepikatuz:

Santa Ageda bezpera,  
beti onela ez gera,  
Elbarrendarrak\* alkar artuta  
atera gera.  
(\* Amezketako auzoa)

Santa Agedak eta Karnabalak nahasian ospatu izan dira, Arribeko herrian adibidez. Honekin, Inauteri giroan sartzen gera.

## 2. INAUTERIEN URTE AROA

Inauteriak garizuma sartu aurreko egunetan egiten diren ospakizunak ditugu, batez ere. Orain dela urte gutxi arte, baraua hasi aurreko tripa-festa batzuen antzera iristen zitzaizkigun. Neguko festa barnean ospatzen ditugu eta kristautasunaren eskutik helduak dira. Hau denok dakigun gauza da.

Laugarren mendean, Paziano donearen hitzak entzuten ziren Bartzelonan, Inauteriaren aurka. Eta ez zen hau ekintza bakarra. Goi Erdi Aroko eliz gizonak mintzaten ziren, behin eta berriz, aurpegia estaltzearen aurka.

Baina esan dudanez, Inautea ospatzea ez da Garizuma aurreko azken hiru egun horietakoa bakarrik. Eta ez herri guztietan eta egun jakinetan izan ohi dena ere.

Inauteriez asko idatzi eta argitaratu dut eta oraingo honetan, besterik gabe, aurrera jarraituko dut; sar gaitezen gutxiago ezagutzen ditugun ohitura batzuk oroitzuz.

Badakigu gizakiak nola erritualizatu dituen bere inguruan gertatzen diren aldaketak. Eta hau oroitzeak garrantzi handia du.

Enparantzetan Maiatzak zutitzea eta ezkaratzetan zuhaitz-adarrak ipintzea ez da besterik antzinako erromatarrek Florari, "udaberri jainkoa zela eta hil hortan egiten den festa-agerkarien hondakin kutsu bat baino", idatzi zigun Jose Maria Iribarrenek.

La Cruz de Mayo  
que no come ni bebe  
en todo el año.

Hau Blanco Whiteri irakurtzen diot. Hamazortzigarren mendean jaio zen gizon argi honi ez zion alde egin "Maiatzeko zuhaitzaren" festa lege honek eta berdin "Maiatzeko Anderearen" erakusketak ere.

Cambridgen entzun omen zuan nola ume batzuek jartzen omen zuten "Maiatzeko Andere" eta mahai gainean ipini, eskezko mahai gainean.

Elizaren zati batek bere eraberritzea egin zuenean, Amabirjinaren irudia andere bihurtu.

En Londres me sorprendió –dijo Blanco Whitek– la semejanza del alegato que los niños de ambos países (España-Inglaterra) recitan para pedir dinero (...).

El mismo nombre de 'maja' o 'maya' que se da a la moza más bella del pueblo que, adornada con guirnaldas de flores, preside los bailes en que los jóvenes gastan el día, muestra lo poco que han cambiado estas ceremonias desde el tiempo de los romanos.

Galiziako "maios" izenekoak festa herrikoi baten erakusketak dira, apirilaren amaieran eta maiatzeko hasieran egiten direnak.

Ospakizun honek adieraz lezake zuhaitz-landarearen garaipena edo ugaritasunaren ohiturazkoa (ritual) eta landare eta laboreen babesak. Badira ere festakizun hau gazteen harremanak indartzean uzten dutenak.

"Maios" izena daramaten ospatzeak ez dira berdinak. Ate, leiho eta metak hostoz eta lorez apaintzea eta baita ere bidegurutzetan zuhaitza jartzea, hau ere hostoz eta lorez apaindua.

Galiziako erdi eta iparraldean, eta berdin beste lurralde sakabanatu batzuetan (hegoaldean Quiroga herrian gertatzen den bezala) gizakume bat, gaztea gehienetan, zuhaitz adarren estalita mozorrotzen dute.

"Maios" mota guztiak, neska-mutil taldeek osaturik, betetzen dute ohiturazko eske-biltzea, kopla bat edo beste abestuz:

Señoras y señores,  
pongan atención  
que vamos a hablar  
del Señor Gobernador:  
no es alto ni bajo,  
ni malo ni bueno,  
parece un reloj parado  
dentro de la gobernación.

Cuando fueron las elecciones  
todo fueron promesas  
ya pasaron dos años  
y aún no hemos salido de éstas.

Itzul gaitetzen gure lurraldera.

Aita Donostiari irakurriko diot hau:

Maiatz auetan, aurtxo-eskakundea, errege-itxuraz edo gabe, guztiz ondo jantziak, gure aurrekoek ongi onartutako oitura bat izan da.

Honelakoetan, gehienetan gertatzen den bezala, bertsoak izan zitezkeen esker-onoak edo ondoko bertso honen antzekoa:

Utzan, utzan ixillirik.  
Orrek ez tin dirurik.  
Zakur zar bat or diaraman  
Zorri zuriz beterik.

Bertso honen zatitxo bat, zerbait aldaturik, ikusi genezake ere Anjel Irigarainen liburuan: "Noticias y Viejos textos de la Lingua Navarrorun".

Goazen, baina, laburki ikusi dugun "maiatz" hauetako batera, San Bizente Aranako "maiatzera". Bere altxatzea, herriz kanpoko zerbait da.

Gehienetan, pago bat da, zuhaitz zuzen-zuzen bat. Maiatzaren hirugarrenean, Gurutz Deunaren Asmakizun egunez ebakia. Hiru herritarrek egiten dute lan hori.

Abarrak moztu ondoren, enbor hau herriko apaizak bedeinkatuko du.

Ohiturazko ekintza bateri loturik dago bere altxatzea, soka edo kate batez baliaturik.

Egun berean, arratsaldetik egiten da landatze hau. Ekintza honen aurretik, merienda bat egiten da, eta San Bizenteko sendi guztiak norbait izango dute bertan. Jan-edan honen inguruan, herriko koskorredi zaratatsua bilduko da, zer-ikusier-gerta.

"Mayo" honen goiko aldean, zurezko zerrenda bat doa gurutzea osatzen. Eta hemendik bi metrora beste gurutze bat, argizarizkoa eta enborrean sartuta, zizel batekin egindako sakon batean. Zerbait beheraxeago, argizarizko gurutzetik metro batera edo, painelu bat hiru zentimetroko iltze batzuek loturik, haizeak astintzen duena.

Eta painelu horretatik beherago, metro t'erdira, lau bat metroko zurezko gurutzea, guraize ireki baten tankeran.

"Maiatza", ospakizunik gabe, irailaren hamalagarrenean kentzen da –Gurutze Santuaren Garaipen egunean (Exaltación)–; egunez kentzen dute eta herritar batzuen artean banatzen dute egurra surtarako.

Gurutze Santuari itsatsita datorkigu "maiatza" hau, eta badu uztak zaintzeko eta lurrak gordetzeko indarra.

Oraindik gogoratzen dira Arabako herrixka honetan "maiatza" altxatu gabe gelditu zen urte batean, harri-erauntsiak nola hondatu zituen lur guztiak.

Baditut jasoak Murietako "maiatzaren" berriak. Nafarroako herri kozkor honen "maiatzak" panpina bat darama bere muturrean, urtetik urtera bere izena aldatzen duena.

Maiatzaren aurreneko egunean jarri eta azkenekoan kendu, igandea baldin bada, bestela ekainaren aurreneko igande arte irauten du.

Kentzeko egun honetan, herritarrek beren festa izaten dute, Udaletxearen laguntzarekin.

Maiatzaren amaieran aurkitzen gara eta Aszentsio eta Korpus jaien ospakizunak San Joan egunaren atarira hurbilduko gaitu.

Aszentsio egunak bazuen garrantzia, txikia ez zena.

Egun honetan –Lugoko Quirogan jaso nuen hau– txoriek beren habiatako arrautzak ez dituzten ukitzen.

Nekazariak ganaduari ez zion harririk botatzen eta honela, artzain mutilek debekatuta zuten lurretik harri bat jasotzea.

Aszentsio egunean, San Joan egunean bezala, bazkalondoan oheratzen zenak logalez igarotzen zuen urte guztia.

Hirutasun Guztiz Santuaren (Santísima Trinidad) hurrengo ostegunean dugu Corpus Christi eguna, Urbano IV.ak 1272. urtean sortua. Festa honetako eliz-bira edo prozesioan guda-gizonak ikustea izan dugu, eztabaida ekarriaz.

San Joanetara hurbildu gara, San Joan bezpera gaueko suak berotzen gaitu.

San Joanei buruz mintzatzeko, uste dut kontuan eduki beharreko gauzak hauek direla, batez ere.

Eguzkia, ura, sua, ate eta leiho dotoretzea. Belarrak. San Joan goiza. Ospakizun naturista.

Errepikatuko dut solstizioko ospakizunek ba dutela eguzkiaren festa edo gurtearen ezaugarri berezia.

Orain esango dut Eguzkiak eta, berdin ilargiak, jainkotasun emezkoa dutela. Eguzkia ez da sartu edo ezkutatuko modu batera edo bestera agurtu gabe: "Eguzki amandrea badijoa bere amarengana; bihar etorriko da denbora ona bada".

Lamia edo sorginek ezin dute argirik ikusi; elkargaitzak dira eguzkiaren argiarekin.

"Eguzkilorea" eguzkiaren irudia dugu, bere izenak adierazten digunez eta bere ondasunaren indarrak eguzkiarenak dira.

### **3. URA**

Neguko solstizioan baino, udakoan indar gehiagorekin eusten zaio uraren ohiturari.

"San Juan iturri" izena daraman urak, han-hemenka Euskalerrian zehar zabal-tzen dira: Iturriotz, Baliarrain, Igantzi, Azkoitia, Komunion Arabako herrixkan, etab.

Ur honek badu osasuntzeko indarra, txikia ez dena, bera edan edo berarekin ureztatuz gero.

Baina hau, San Joan egunean edo bere inguruan egin beharreko gauza da. Egun hauetan bakarrik baitu bere indar berezia.

Euskalerriatik irtenda –San Agustinek dioenez– Libian bazuten itsasoan bainatzeko ohitura, San Joan egunean.

#### **4. SUA**

San Joan bezpera gauean, gure plaza edo enparantzan, baserri inguruan eta bide-gurutzeetan, sua pizteko ohiturari jarraitzen diogu.

Su hau pizteko erabiltzen diren belarrak, aurreko urteko San Joan eguneko mezan bedeinkatuak dira, herri batzuetan ohitura dutenez. Ganbaran ihartzen utzi eta beren izena, Berroetan adibidez, "belar ona" dute.

Beste herri batzuetan, Berastegi, Abaltzisketa, etab. heriotzaren bat gertatzen zenean, etxeko belar bedeinkatu hauek egosi eta ur horrekin hildakoen gorputza garbitzen zuten.

Ikus dezagun herrixka bateko San Joanen ospakizuna.

Nafarroako Gorriti herrian ospatze berezia izan du San Joan bezperak eta egunak berak. Bezpera gauean, herriko mutilek pizten zuten sua eta su gainetik salto eginez esaten zuten: "Urril, urril San Juan, sarna fuera".

Sua itzali eta afal ondoren, "Lagun Artea" izena zeraman elkarteko gazteek puska biltzera irteten ziren. Gazta eta ogia ematen zizkieten gehienbat eta etxe bakoitzean pare bat musu-painelu uzten zizkieten.

Puska biltze haren ondoren, bandera antolatzen zuten, San Joanetako bandera, herriko ostatu edo tabernan. Eginkizun hau neskatxentzako gelditzen zen. Horretarako elorri makila batez baliatzen ziren, eta mutur batetik barrena belarrez betetako zaku bat sartzen zuten. Zaku hau bezperan bildutako paineluekin estaltzen zuten. Hau izaten zen Gorritiko San Joan Bandera.

San Joan goizez, gazteek meza nagusira joateko ohitura zuten eta, ondoren, tabernan bazkaltzekoa. Bazkal ondoren, plazan bandera jarrita, dantzaldiari hasiera ematen zioten.

Erromeri honetan, mutilek eta neskatxek inguruko guztiak gonbidatzen zituzten, ardoarekin eta bezperako puska-biltzen bildutako gazta eta ogiarekin. Gazteen "mayordomoak" egiten zuen banaketa hau.

Ilun-ezkilekin batera amaitzen zen dantza. Bandera etxeratzen zuten eta soinu joleek urteroko "erretira" doinua joaz, neska-mutil guztiak tabernara egiten zuten.

San Joan biharamuneko egin beharra izaten zen musu-paineluak zintzo-zintzo beren jabeei itzultzea.

## **5. SAN JOAN GOIZA**

San Joan egunean bildutako lore eta belarrek ere badute osasunarentzako indarrik. Eta San Joan goizean ihintzetan hanka hutsik ibiltzen bagara, gaixotasunik ez dugu izango.

Beste alde batetik begiratuta, interesgarria da G. Mujikak esaten diguna, San Joan egunean Oartzunen egiten ziren opari edo ofrenden inguruan. Opari hau mozorrotutakoan artean banatzen omen zuten.

San Joan gaueko hamabi kanpaien doinuarekin batera, mendiko garoa ernezen omen da, Oartzunen aldeko sinesmenak arabera.

San Joan goiza urte guztiko alaiena dugu. Goiz honetan, eguzkia dantzan sortzen da. Urtearen gaurik laburrenak sarrera ematen dio egunik luzeenari. Baina beti eta denontzat ez da honela izan. Hemen oroitzen naiz herri batean baino gehiagoetan entzundakoaz. San Joan goizean festara gonbidatutako andre bat ondo gosaldurik ondoren oheratu omen zen eta iluntzean esnatu, hau esanez:

Ai San Joan, San Joan, egune, argitu orduko illune!

Festa askok eta askok berezko ditu erraldoiak eta bertan izatea atsegina eta oroigarria suertatzen zaigu.

Txistu edo dultzainaren musikaz lagundurik, inguruan buruhandiak edo gizon-txoak bihurri eta jostalariak dituztelarik, erraldoiek airoski dantzatzen dira eta ederki pasa ere bere kale-alaitasun kutsakorra agertuz, guretzat hain ezaguna.

Izan ere, gure herrietako erraldoi eta buruhandiak bere izenez ezagutzen ditugu eta gure artean, bakoitza bere herrian, itsatsirik daude. Gureak dira. Etxekoak dira.